

guifi·net



Telekomunikazio sare alternatiboa
irekia, askea eta neutrala den sarea

¿Zer da **guifi·net**?

“Auzolanean eraikitako proiektua da,
irabazi-asmorik gabeko fundazio batek babestua, eta sare aske,
libre eta neutral bat eraikitzea helburu duena”

Jada 28.000 erabiltzaile baino gehiago gara!!!

“Erabiltzaile guztien laguntzarekin gure sarea sortu dugu eta puntu konkretu batzuetan interkonexioak egiten ditugu beste operadoreekin, euskaltel, telefonica, jazztel, ono... internetera heltzeko”

¿Zer da *guifi·net*?

- Gizarte zibiletik sare irekia eta neutrala hedatzen
 - Pertsonak, enpresa eta administrazioek, azpiegiturak gehitzen dituzte guztionaren sarera, berdinen arteko interkonexio akordioaren bitartez
- Interneteko hasierako kontzeptua berreskuratzen eta hedatzen:
 - Inolako jaberik eta eskusibitaterik gabekoa
 - Pribilegiorik gabekoa, arau berdinak guztiontzako eta guztion artean erabakitakoak
 - Eredu ekonomikoa sarea hedatzera eta zerbitzariak gehitzera bideratua dago, eta ez soilik infraestruktura eskusibo bat esplotatzera.

¿Nola sortu zen **guifi·net**?

- “Enpresa eta etxebizitza konektatzeko beharrari erantzun moduan jaio zen proiektua”
- “Telekomunikazio operadore handiek ez zioten erantzuten erabiltzaile isolatuen beharrei”
- “Erabiltzaileen borondatea eta laguntza konponbide teknologikoa aurkitzeko, sarearen sorrera posible egin zuen”
- “Erabiltzaileen kooperazioa sarea bultzatzeko eta hainbat eduki eta zerbitzu sortzeko aukera eman zuen”

Zein da oraingo egoera?

“Enpresa ezberdinek internet eta VoIP zerbitzuak eskaintzen dituzte sarea erabiliz”

“Erabiltzaileak beraien artean antolatzen dira Internet gastuak partekatzeko.”

“Erabiltzaileen artean arazoak konpontzen dituzte, auzolana uztartuz.”

“Guifi.net fundazioa operadoreen erregistroan izena emanda dauka operadore moduan.”

Egitura orokorra

- Sarean bi osagai daude: Nodoak eta supernodoak.
 - Nodoak etxebizitzak dira, hau da, sarea osatzen duten oinarria.
- Supernodoak nodoak elkarren artean konektatzeko puntuak dira. Bertan bideratze lanak egiten dira.
 - Herri bakoitzean hiruzpalau supernodo egoten dira, toki estrategikoetan.


Egitura orokorra

- IPv4 erabiltzen da sarea antolatzeko, 10.0.0.0 motako IP helbideak erabiltzen dira guifi.net-eko IP publiko bezala. Adibidez, Euskal Herrian 10.69.0.0 IP helbideak erabiltzen dira.
- Bezeroei (nodoei) IP helbide bat esleitzen zaie antenna konkretu batera konektatzeko. Momentuz ez dago roaming edo antzekorik.
- Supernodoak elkarren artean konektatzeko Interneteko bideratze protokolo berdinak erabiltzen dira: BGP eta OSPF adibidez.

Guifi.net-eko webgunea

- Proiektuaren informazio guztia webgunean biltzen da. Bertan konektatuta dauden nodo eta supernodo guztiei buruzko informazioa ikus dezakegu.
 - Herri batean sartzen bagara herrian konektatuta dauden nodoen zerrenda ikus dezakegu
 - Nodo batean sartuz gero bere IP helbidea ikusiko dugu; supernodo batean ordea, IP-ak aparte loturak ikusiko ditugu.
- Informazio estadistikoa dago baita ere, latentziekin eta erabilgarritasunarekin.

ADIBIDE BAT



-  Internet partekatzeko edo Internet ez dagoen tokietara eramateko.
-  Zuzeneko emisioak egiteko, irrati edo bideoak.
-  Urruneko kontrola eduki ahal izateko.
-  Urruti dauden bi eraikin elkartzeko.



Ohiko internet konexioa



Empresako edo baserrien urruneko kudeaketa



Voip eta bideokonferentziak



Internet bidezko tb eta irratiak



Teleasistentzia



Internet nekazal gunetan edo 2º etxean



bideobigilantzia

